

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

116n. Zenbakia

Zezeilla
Otsaila
1988



ARRIETA'tar NIKOLA

- Aldundiko langille sariduna.
- Euskerazaleak alkartean laguntzaille ona.
- Batzordekidea.
- Egutegian idazlekidea.
- 90 urteetako lanari, esker onez.

ALLEN-MENDIAK

Lenago be esanak gara, sarri-askotan eskualdeko mendirik goitienak, mendi-zale geiagok ikustatuak izaten dira, erdi-goitia eta mendi txikiago-ak baiño, esatebaterako gure Euzkadi onetan Gorbeya, Aizkorri eta Aralar baiño, euren edertasunak eta entzuteak bultzatuta.

Gaur aipatzen dogun Alen au, ez da aundienatarikoa, baiña, ez txikerrenetarikoa be, beren 798 neurkin goraka dituan ezketiño. Geien bat, baiña gure idazlan-txu onetan aipatzen ba'dogu, euzkotarrok sarri-askotan pizkat aaztuta eukiten dogun Enkarterria, burdin-meatz eskualdean tinkatuta aurkitzen dan esketiño, ezaugarria iruditzen jakulako. Supuerta'ko lurraldean aunkitzen da, Arzentaless, Iturriotz (Trucios) eta pizkat urrunago Muzkiz'erdian.

* * *

Sopuerta orretatik igaroten zan, orain ogei bat urtera arte, Arzentaless'tik C. Urdialez'erako bultzia, geien baten inguru ortako burdin-meatzkiak eroaten ebazana. Burdin-bidea, geien bat menditarte eta lurpeko zuloetatik joaten zan.

Lenago esan dogunez, ez da oso mendi goitia, baiña, ikuskizun bikaiñik asko ditu beren gaillur luzenge baiña zorrotzetik, bai itsaso-aldera eta bai Enkarterri'rik geienerantza.

* * *


Alen mendi orretara zuzendu nai dabenak eta, Bilbaldetik urtetan ba'dau berebillez, egokiena da Sopuerta-rañotu eta bertatik jarrai olabarrieta auzunera (Lenago Las Barrietas ipinten eban bertan eta, orain ikusi dogu nonbaiten Olabarrieta eta, gure ustez ori da beren jatorrizko izena) eta bertatik jarraituaz bitxabalari, igon Alen auzune bakanera eta, bertan burdia laga ondoren, artu geure gaiñ ikusiko dogun mendi erpin orretarantzko bidea, baiña, zearka ezkererantza egiñaz, zuzen igoteko oso erpiña dalako, igongo dogu mendi-lepora. Mendi-lepo orretan barriz eskomara, Ipar-alderatza ganik-gan igongo dogu, baiña, gailurrera eldu baiño len etxe edo gaztelu-zarren baten aztarrenak aurkituko doguz eta, goian, gailurrean, mendi-kutxa eta gesiko maia.

* * *

Alen'go auzunean eta bai Enkarterri'rik geienaen be Kastro-Alen deitzen dautsoe mendi oneri eta, beraz, ziurki goian ikusiten doguzan etxe-aztarrenak, antziña bertan izandako guda-gaztelu zarraren aztarrenak balitzake izatea.

Ezagutu irakurle, geure lurraldea.

BASA-JAUN



IRU LARROSA

Kristaleko ur-ontzian, iru larrosa abar orlegi artian, arpegi argiak.

Bi, zuri oriak;
larrosa kolorezko, orra bestia.

¿Nundik jatorkitzue margo eder orrek?
Baratzeko basterran, turra da baltza...
¿Eta usain ori? iZuben sustrai ganian zenduen zatza!

Kimikalari trebe, ikusi-eziña eguan baratz atan iOrotar Jauna!
Berbera ementxe dago geure inguruan, geure barruan, baita.

iAbestu alkarren, abestu bere aintza!

UTARSUS



ARRIETA'tar NIKOLA, EUSKERAZALEA



Gure alboan lan eta lan ibilli diran gizonak, gu baiño zarragoak izanik antxiñatik eta isillean, al izan daben neurrian euskerearen alde lan egin daben ekin-zaille apalak, ez dira aizatututa geratu-bearrekoak.

Olako bat dogu gure inguruan lan isilla egiten dauan Nikola: Gaur batzarrera, urrengoan "Euskerazaleak Alkar-teak" k argitaratzen dauan egutegirako lanak, urrengoan alako edo olako itzulpena... eta ori larogei ta amar (90) urte lepo-gaiñean dirala...! Benetan eredugarriak olako gizonak!

Zer'ek: Noz eta non jalo ziñan Nikola?

Nikola'k: Ni Mungia'n jaio nintzan, Larrabizkar ondoan dan Larreta Baserrian, 1897'ko zezeillaren 2'an. Mungia'koa nozu ba eta maite dot neure erria.

Zer: Lenengo ikasketak Mungia'n egin zenduzan eta antxe bizi ziñan gudaritzara joan arte. Esan egiguzu zerbait zure gudaritzari buruz.

Nik: Gudaritza Donostian egin neban, artillerian, iru urte igaro nebazan an.

Zer: Gudaritza amaitu zendunean, lanera sartzea izango zan zure arazoa.

Nik: Gudaritzatik etxeratu nintzanean, Aldundira langille lez sartzeko norgeiako bat zala barria eldu jatan. Orduan "foralak" esaten jakenen idazgoan lan egiteko zan eta norgeiako orretara sartu nintzan. Lan-tokia lortu be bai. Idazgo aretan egin neban lan 7 urtetan. 1929'an beste norgeiako baten Bizkai'ko Agiritegi ta Liburutegi-ko langilleen Ardudun izateko lana ezarri eusten eta 38 urte egin nebazan lan orretan eta gero saridun

biurtu naz eta orretan nago orain. 54 urte ta erdi igaro dodaz Bizkai'ko Aldundian langille eta 21 urte dira saridun biurtu nintzala, 1967'an.

Zer: Olako lanak lotura aundia izango ziran zutzat, lana beti da, izan be, lotura, eta zeuri atsegin jatzuzan zeregin asko bete barik izango dira.

Nik: Ni atsegiñez ibilli naz lanean, baiña, bai, saridun biurtu ezker askatasun geiago dago, etxeokai laguntzeko, egin nai diran lanak egiteko...

Zer: Zu emen "Euskerazaleak Alkartea" ren inguruan aspaldion zabiltz. Noztik, zergaitik, nortzukaz...?

Nik: Montiano Euskerazalea etorri jatan Aldundiko Liburutegira eta an Euskeraz berba egiten genduala ikusirik, egun baten, "La Gran Enciclopedia Vasca" ko Jose M.^a Martin de Retana gugaz egoala, Euskerazaleak alkartera etorteko deia egin eustan. 1967n. urtea zan eta ni urte orretan epaillaren lenengoan biurtu nintzan saridun. Pozik etorri nintzan Alkarte onetara, ez gizon aundi lez, lan batzuk egiteko baiño. Abeletxe'gaz batera idazgoko lanak eta olakoak egiten genduzan. Jesus Oleaga zan Lendakaria, Jose Maria Makua Diru-Zaiña. Orduan be Egurrola izaten genduan laguntzaille, txartelak, adrema-lana ta olakoak egiteko. Orrelan amar urtetan.

Zer: Baiña orain ez dozu egiten olako lanik.

Nik: Ez, orain Batzordean maiko naz, baiña ni ez nago-olako lekuetarako gertatuta. Nik beti egin dodaz aunditasun-bako lanak.

Zer: Ederto, Nikola! Baiña ez dogu amaitu bearko zure emaztea gogoratu barik, ez?

Nik: Ez orixe. Nire emaztea Epifania Goya da, gipuzkoarra, Mutiloa'koa. Orain 87 zazpi urte daukaz eta nitzat bera izan da laguntzaillerik onena. Ezin amaitu ba, alkar-izketa au berari eta nire etxeko zintzoai neure maitasuna ta biotz ona agertu barik. Ba-daukat Jaungoikoari zergaitik eskerrak emon, baketsu ta zoriontsu bizi izan garalako eta estualdietan naiz gaiso-aldietan beti aurrera egiteko lagundu dauskulako.

Zer: Zeuri be eskerrak, Nikola, Alkarte onetan egin dozun eta egiten dozun lan ederragaitik. Urte askotan zoriontsu ta osasuntsu bizi zaitezela.

OLAZAR'TAR MARTINEK

Zakeo

Gizon au bide zala, Jesusek irakatsi on bat emon nai izan eutsan gizadiari. Benetan gizona, bakarrean ta gizarte barruan, ikusten eban. Ta gizakiak gaizkatzera etorri zan Jesusek, gure bizitzari, barru barruan, ikutu eutson, ta egiz, ondo, astindu eban gizonaren erantzupena ta gizarte-auziaren gora-bera Zakeo publikanuaeren joka-bidean.

Gizarte auzia dala-ta, munduan zear zer esan aundiak dagoz. Batzuk norberaren poltzeari, bakarrik, begiratzen dautse. Pillatze ortako larregitan, munduan zear, uger, ainbat jende dabil. Berez, jatorriz ondasuntsuak izan direnak, ta len beartsuak izan arren, gero aberastu zirenak be, pillatu ta pillatu dabilzkanak munduak eza-gutzen ditu. Onen buru-biotzak ez dautse errukirik artzen beartsuen egoera larriari.

Ba-da beste aldra eder bat be, langilleria, eurrez, miñean erabilten dabena, baiña aren izenean aginpide ugela artu ta, bapo bapo, bizi direnak. Lurra zabala da, ta orretarikoak ugariak dira mundu zabalean zear.

Auzi ori dala-ta, gizadian gora-bera asko ikusi izan da... ikusi eziñak, burrukak, ilteak eta abar. Asko ta asko Hengells, Marx, Lenin ta... gidarizat artura dabil-tzaz langilleriaren alde oiuka. Gizon onek ez eben emon curen bizia beargiñaren alde kurutzean... Baiña pobrea-ren alde, zintzotasunez, egiten dan guztia, gauza txaloga-ria da.

Kristau taldeak, bere izenak agertzen daben lez, aserrekeriak ta ilteak, alde batera itzirik, zuzentasun bidez nai dau langille arazoa, aurrera, atera ta munduko beartsuen negarrak gizartetik betirako kentzea. Ortarako izan ere, maisu ona dauka, errukitsua ta esan eban guztia kurutzean illez, maitasunezko odolaz baieztu ebana.

Jesus, bein baten, Jerikora eldu ta kaleak zear joian jende talde aundiak inguratuta. An, ba-zan gizon bat, oso aberatsa ta Jesus ezagutzea nai ebana. Baiña dirutzaz aundia ba-zan be, gorputzez txikia zan ezkeroz, india piku baten gaiñera igon eban. Benetan esan geinke gizon onen Jesus ezagutzeko gogoia egizkoa zala.

Pare artara eldu zanean, zugatzera begiratu ta Jesusek onan itz egin eutson: "Zakeo, jatxi zaite, gaur, zure

etxean nik ostatua izatea, gauza egokia da". Jatxi da ta pozik doa Jesusen jarrai.

Lendakariak Laterri batetik bestera doazenean euren arazoetara, alkar ikuste negurtua izan da esan oi dabe batzuetan; beste batzuetan ostera, alkar-izketa bioztsu ta zabala izan dala poz guztiagaz agertzen dabe. Zakeo zugatzetik jatxi ta beregana eldu zanean, Jesusek, pozik, artu eban. Alkarrizketa atsegiñezkoa izan zan bientzat.

Au ikusirik, an inguruan egoan jende guztia marmar asi zan esanez: bizitza txarreko gizon baten etxera joan da. Jesusen urratzak, beti, olantxe ondo orraztuak izan ziran, ta jazoera ontan ere, olan, izan bear eban, Jesusen gizonaganako ta beartsuenganako zuzentasuna borondate oneko gizonentzat ondo, tajututa geratu zedin.

Gero, Zakeok Jesusegana begiraturik dirautso: Gaurtik aurrera neure ondasunen erdia beartsuei emongo deutset, ta iñoiz, iñori ezer ostu ba-deutsat, osturiko bateko lau geiago biurtuko deusat. Au entzunik, Jesusek erantzun eutson: "Gaur, egiz, etxe onen salbamena izan da".

Zakerori zer jazo jako, Jesus ikusteko izan eban egarriaren inguruan?

Jesusek gizon aregaz zergaitik jokatu eban era aretan?

Zakeok ondasun aundiak eukazan ta gosea kentzeko, gaurtik aurrera, ordutik aurrera, ondasun erdiak beartsuei emongo eutsezela Jesusi esan eutson ta ezer ostu ba-eban, osturiko lau tanto geiago biurtuko eutsozala. Jesusek Zakeroren jokabidea ontzat artu ta salbamenagaz bedeinkatu eban.

Emen daukagu gizarte-auziaren arlo bat, ondasunak zertan erabili bear diran agertzen dabena. Lurrean dagozen aberastasunak ez dira norbere-altxor legez pillatu ta gordeta eukiteko. Jesusek, pozik, bedeinkatu eban Zakeoren jokabidea esanik: gaur salbau zara.

Ta an, marmar, ibili zan jende guztiari be, Jesusek, ondo, agertu eutsan, Zakeoren etxera zertan joan zan. Egite onen bidez, Jesusek gauz bi agertzen deuskuz: lurreko ondasunak, ondo, erabiliagaz, betiko salbamena lortzen dala.

PAULIN

ETXANIZ-TAR NEMESIO GOGORATUZ (Larrea'n ospatutako 28 g. Olerti-Egunean)

Urte asko, ogetazortzi, daroaguz Olerti-Eguna ospatzen, aldi txar eta onetan, emen Larrea'ko komentu ontan. Olertizale eta euskerazale errimindu askoren zorioneko babesleku baketsu ontan.

Urteak aurrera doakiguz ta euskereari uko edota, muzinik egin barik urterik urtera, etorri al izaten dogunok, poz-bizitan etortzen gara karmeldar santutegi ontara olerkide eta adizkide lagunak besarkatu eta agurtzera. Erri maitasuna da emen nagosi, euskel maitasuna. Eta, zergaitik ona? Jakiña da emen sariakaz ez tala biotzeko poza besterik lortzen. Gitxi al da ori? Asi Jaurlaritza, Euskaltzaindia ta beste onurazko erakunde guztiak gugandik urrun bizi dira. Antza danez, guk dabigun euskereak ez dau goi-mallako intelektual aiererik, baserritar lurruna besterik, ori dirudi eta, aintzakotzat be ez gaitue artzen...

Baiña, guk, olerkari izena daroagun apurrok aurrera darraigu geure bidean. Eriotzak banandutzen gaitun egoitza, alkarbide ontatik, gure artetik igaro izan diranak askotxu izan dira, ta, orretariko bat, gaur gogoratzen ta biotzez txalotzen dogun Azkoitiar seme, Etxaniz-tar Nemesio abade agurgarri ta zintzoa. Olerkari, idazle, izlari bikaña. Larrea ontan makiña bat bider meza emon ta lagundutakoa. Berein aldiz olerti-epaimaiko izana. Bai, Larrea'ko Olerti Egunak badau bere gatx eta ospiña, bere aparteko aokera ta ondarra, zaragi zarreko ardauek lez bere sena. Don Nemesiori buruz, Andoni Labaien tolosar ospetsuak idatzi ebanez: "Gauza guztien gañetik, apaiz euskeltzale ta jainko-zale bait zan, eta ez zuan beste elbururik izan bizi guztian". "Ausarta ere bai Justiziaren alde, batzuei arin eta jostari-egia ote zan zerizkien".

"Ainbeste kanta ta bertsoaldi pozgarri sortu zituana, gaitzak jota, muturik arkitzen... Idazle txukun onenetako bat bazterrean aztuta. Itz lauz ezik D. Nemesio izan zan olerkari-tzan, ots! azken modeko kanta berrietan lenengo leiatu zana. Nola aztu aren "Kanta-Kantari" liburuxka zoragarria? D. Nemesiok gaztedia eta janari egokia eskañi nai izan zien euskaltasunean bide zuzenetik joan zitezen". Etxaniz il ondoren, lerro auek, Ibalan'ek Principe de Viana'n 148 g. zenbakian idatzitako aren gomutazko artikulotik nik jasotako lerroak dozuz, irakurle. Etxaniz'en lana, zati eder aundi bat beintzat, argitaldutako idaztietan dago: "Arraldea" ele zaarra, Argiak argitaldua ta agortua. "Nola Idatzi Euskeraz? (idazki-sorta Itxaropena argitaldaria) "Egintza Katolikoatzaz Ikasbidea" (Aurrentzat), "Kanta-Kantari" (Abesti berri sorta). "Izeko Aberatsa ta Irulearen Negarra" (antzerkiak). "Itziar'ko Andre Maria-ri Bederatziurrena". "Kristau Ikasbidea Bertsotan". "Antzerkiak". "Mundu Berri Billa". (Izarra Irarkola. Donostia 1967) Lan irakurgarri ederra dogu benetan bere eleberrilabur, sei ipuin, Irratsaio Txangoakaz, bere Irratirako ipui antolatuak, bere Irrati Antzerkia ta, Olerkiak iru salletan bananduak ta Abestiak beste bitan: lenengoa Aur-abestiak ta bigarren sailla Gazte Abestiak.

Beste zati eder bat aldizkarietan daukikegu, aren aldiko "Euskal Esnalea", "Argia", "Euzko-Gogoa", "Egan", "Zeruko Argia", "Olerti", "Karmel" ta, biarbada nik eztakidazan beste batzuetan. Aita Onaindiak bildumatutako "Milla Olerki Eder'en, en be, bederatzi olerki aintzagarri auek aurkitzen dira:

"Buru-Errota", "Ama", "Gabon Aize", "Kristo-Berri", "Donostia", "Iturri Agortua", "Ekaitza", "Gizon-Erri", "Gogo Amilla".

Ikasketak Lekaroz'en eta, Sandarderreko Comillas'en egin ebazan, eta, abadetu 1924'an. Euskaltzaindia'koa zan.

Ipuñakaz ta irrat-itxaldizko lanakaz be jazo izan ebazan merezitako sariak.

Lagun artean, umore onekoa, alai agertzen zan. Gogoan-garriak dira aren abestiak ta, aren abestietarako musika-sena. Larrea'ko olerki-egun batzaldietan ezagutu izan genduanok gogoan daukaguz aren kantu ta izkirimiriak. Moda barriko kantuak!:

"Astigarraga'ko Tomasa'k,
orrek eman dizkigu azak!

Lau mutil dabilta
nexka orren ondoren,
ta bakoitzari emen dio
maitasun laurden.
Astigarraga'ko...

Jakingarriak dira aren urre-aldiko olerki-lanak. "Katalin", "Ezten atzokoa", "Deia", "Ain urruti ta ain urbil", "Ekaitza", ta abar; egokiak baita ikastoletarako "Argi-Kanta", "Kanpai-txoak", "Oillotxo txuria", "Errekatxo Kantaria", "Gabon-Aize", "Buru-Errota", ta ainbat geiago.

Noiz asi ete euskeraz idazten? Eztatit. Baña, EUSKAL ESNALEAN, 1926 Uztailla, 271 g. zenbakian dator kristau batek idatzi leiken otoitzik laztankorrena, nunbait abade egon zanean, Araba'ko Urarte'n. Ona ba, emen:

ANDRE MARI'RI

1	3
Zure eguna gaur pozez beterik lurrean igarotzean, gogo bizi bat erne zait zorrotz nere biotz-barrenean: "Noizbait egun au igaroko ote degu zeru ederrean?".	Ta era batez begiratu det goiko zeru ozkarbira. Izarrez zegon apaindua ta zora naiz ara begira. iBai pake ederra goietakoa, bai atsegin, bai zoruna! An ez daukate gorroto txarrik, an nagusi maitasuna.
2	4
Au esan eta lur onetako gauzei begira jarri naiz. iA! zenbat neke gizon-artean, zenbat naigabe, zenbat gaitz. Argatik illun bera begira esan det gaur zu ikustean: "Noizbait egun au igaroko ote degu zeru ederrean?".	Argatik gogo bizi-bizia erne zait gaur biotzean: "Noiz bait Jainkoak batu gaitzala bere zeru ederrean!".

Txalo gure arteko izan zan euskaldun jator Etxaniz-tar Nemesio olerkari ta idazle onari! Beraz, agur!

SASI MAIXUKERIAK

Azkue'k-idatzitako lenengo liburuen artean "Bein da betiko" zana ba-nekian. Orain arte ez neban izan bera irakurteko aukerarik. Baiña orain, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailla'k egin daberen argitalpenari eskerrak, beraren jaube egin aal izan naz eta irakurri.

Ez da liburu andia. "Bein da betiko" upiñaz gainera beste upiñ bat dakar, "Batxi Guzur" izenekoa eta ainbaten itz-aurrekoakaz eta iztegiagaz 166 orrialde baiño geiago ez dakaz.

Azkue'en upin eta olako idazlan geiago irakurrita naz. Ondo idatzitako lanak ziran, akats txikienik be ez euker idazkera alde-rik begiratuta. Olan ba, ezer esateko biderik ez eusten emon. Ostera "Bein da betiko" irakurteak zer-esan apur bat emon daust.

Axular'ek lez esanai bardiñako edo bardintsuko berba asko sartzen ditu alkarren ostean esaldian. Ara batzuk:

"—Eta mandazaiña ta erbestekoa dala ta txakur amurratuagandik legez alde egin, igesi ioan, lepoa erakutsi, begiratu bere ez egin gura?"

"—Maripa; nor dan orretarako beren bizikoa ta alagalakoa laster erakutsiko daunat."

"—Bakean itxi. Ori iñoat neuk bere bada; auri, orixe, berori."

Baita be askotan ipinten ditu esanai bardiñeko berba bi "edo" alkartitzak banatzen dituala. Au, irakurleakaz gogoratuta egiten dabela esango neuke, berba bat ez ba-daki bestea jakingo dabela-ta. Ara batzuk:

.. ta beren ezpanak motzailen artazi edo guraizak legez gelditu baga alkar ioten..."

"Iagutsasunik ezaz sotil da etsaiz edo arerioz inguratirik dagoalako."

"Seaskan edo kuman ipiñi eik geure laztan ori..."

"Lenengo erdiratu eik txisillua, ta laburtxua da baiña aur dagoan zamauaz edo mai-zapiaz estaldu eik:"

Eratorkiak diran berba batzuk orretarako dituen atzizki des-bardiñez ipinten ditu batzutan. Ara zelan:

or zaukadaz deika ta deiez, barrurik sakonenari ganez eragiteko bestean."

;"ak beren egimen edo egitada guztietan zir maratxu bat zirudian;"

"Kontulariak, edo zeatzago esatearren, kontulariak, ibiltaldiko lagunen zamaak croan ezarren,..."

Berba bat bi bidar jarraian esatea oituten dan gauzea da euskeraz. Erderazko "muy" euskeratzeko berba bat bestearen atzean esatea baiño beste erarik ez dogu ondarrutarrok. Olanxe:

"On-ona da." "Gaizto-gaiztu de." (Gaizto gaiztoa da.) "Zikin-zikin ein de gure umi." (Zikin-zikin egin da gure umea.)

Azkue'k be ba-darabil era au. Baiña esaldi baten berba bat jarraian iru bidar esaten dituanak be aurkitu dautsadak bi edo iru. Ara zelan:

"Zorgin-aldra luze luze luze bat, santzoka uluka irrirtzaka, miauka intzirika orroika..."

"Aizurdipeko Santa Kataliñak argi-mutilla eskuetan daukala, erri polit polit bat dakuse:"

Nik olakorik beste iñori ez dautsat irakurri.

Urrengo esaldiko esakeraren antzekorik ez dot sekula irakurri; berba bategaz esan leitekeana zazpi berbaz esaten dau.

"Ezaz i, Txili, bein ez bein da baten ez baten bildur izan?"

Goiko ori berba gitxiagogaz esan leiteke, olan:

"Ezaz i Txili, sekula bildur izan?"

Erreflexibuan datoz era onetan esan ez bear litzakezanak. Ara artu ditudan iru esaldi, parenthesis artean neure erara jarrita:

"Ni, badakik Erroke, ikusguratsua nok, eta emazteak etxetik ez urteteko aginduarren, zirrín zarran ondo lotu baga, kalera atera naieuan neure burua ta ene Lorentzotxuna." (...kalera urten neban ene Lorentzotxugaz.) (Ondarru'n ez dogu ezagutzen ikakorik).

"Eskeko bategaz neure burua?" (Eskeko bategaz neu? la eskeko bategaz bera ezkondu, nai eban esan.)

"Beren buruagaitik oskilla entzun ebanean, esku biak ukabildu ta astakeriren bat esan da egitera ioan seiñero indartsua."

(Beragaitik oskilla entzun ebanean, esku biak ukabildu ta...)

Goiko esaldi orreitan ez dago "neure burua" "beren burua" ta antzekorik esan bearrik. Gramatikan nik baiño geiago dakiten gain lagaten dot erreflexibuk noiz ibiltan diran esatea.

Urren datorren esaldiaren antzekorik be ez dot sekula irakurri.

"Ama samurraren bizia il al izateko."

Orren ordez era bi oneitatik batera egingo neuke:

"Ama samurrari bizia kendu al izateko."

"Ama samurra il al izateko."

Atsegin ez jatan beste esaldi bat.

"Antxe abe ganetan ibilli nintzoan neu."

Or, "antxe" berbea da erderaz inkiridua esaten jakona. Beraz, beste barbarik indartu bearrik ez da; izenordea, "ni" esan bear da:

"Antxe abe ganetan ibilli nintzoan ni."

Ondoren datozan esaldietan parenthesis barruan joango da nik idatziko neukeana.

"Noizik noizera amantalaz igozten (igortziten) ebazan beren begi negartsu ta gorrituak."

"Zure eskua edegiaz, bizidun (bizi) guztiok onegiñaz aseten gozuz..."

"Batuko dan diruaz Txiliren alabeari zerbait erostekoan (erostekotan) bai."

"Eu zorgiña ezpaaz, tximista ori, etxago emen beste zorgin-antzdunik (Zorgin-antzekorik)."

"Neuk bere gizaseme indartsu ta barru sendodunak (sendokoak) ezautu dodaz;"

"...onek beronenetan emakume ganoraduna (ganorazkoa) ta oartua zana agiri eban;"

"Gizonak salduaz da lapurretan aberasturiko aker zaar, koipe-dun (koipezto), arlote orregaz."

BALENDIN ENBEITIA, OMENDUA

Gizona aspaldi jabetu zan ederraz. Griegoak eurak baiño be aurrerago ederbilla asaia zan. Ederrak erdi-zoratua ekarren Platon. Eta Aristotele'k liburu txikia osotu eban, "Estetika" eritxona. Eta olantxe gero, mende ta gizaldietan bizi izan ziran gizaseme jakitunak.

Bai, eten barik itandu izan dau gizonak: "Zer da ederra?" Bear bada gizonak nastu egingo ditu, lur eta izar-auziak, baiña ez dau egundo eder-auzia aztuko. Aldi ta tokiz aldakor ba'dira be, munduko zer askotxo, edertasuna ez da aldakor, naiz eta aldi bakotxak eta toki bakotxak eder ori bere erara artu ta adierazo.

Euskaldunok, ederra, au da, izadikoa ta geuk sortutakoa adierazo al izateko arte-erarik asko daukaguz. Era aparteko bat, ostera, errialde gitxik baiño ez daukana, bertsolaritza dogu guk. Ederra adierazteko era berezi au aspalditik ba-zana —or testigu gure kanta zaarrak—, gaur-egun be ez daukagu makal ez gaixorik. Gaur be bertsolari jaio, zorrotz, bizi ta lirikuak dabiltz gure artean. Olako zerbait ikusi ta entzun genduan aurtengo azaroaren 1'an, Bilbo'ko Arriaga teatroan domekaz, eta Euzkadi osoan urrengo astelenez telebistatik.

Bizkai euskal folklor Alkartek eratu eban Balendin Enbeita bertsolari nekagogorrari egin bear jakon orne-na. Onela iñoan alkartearen orriak: "Bertsolari, idazle eta dantzari abertzale izan zan Balendin Enbeita gogora dezan omenaldi hau Euskal Herriari eskaintzen dio".

Merezi eban omenaldia. Berau, Balendin izan bait da, gerra aurretik beronen aita Kepa Enbeita —gure Urretxindorra— izan zan legez, gerra ostean eusko abertzaletasuna goi-goira jaso ebana, baita Franko'ren agintaldian be, berau izan jakun urte askotan Bizkaiko bertsolaririk errez, ugari ta bizierna, gaurkoai ezertxo be kendu barik.

Urriaren 26'an, egitarauak ekarrenez, astelen illuntzean nik bota bear neban omenerako deia, au da, inauguraziño *pregoia*. Bilbo Aurrezki Kutxak Elkano kalean dauan Kultur Aretoa zan omenaldiaren asiera. Ni ara nintzaneko jente mordoa batuta aurkitzen zan an, B. Enbaita'ren sendikoak asko, erritar eta ezagunak, txistulariak, argazkariak ez gitxi olakoetan oi danez, Bizkaiko Foru Aldundiko, Bilboko Udaleko, Gasteiz'ko Jaurlaritzako ta olako ordezkari pilloa. Bertsolariak be emen ziran, Jon Mugartegi ta Jon Azpillaga.

Apain-apain eginda daukagu aretoa, erakusketa onako oneikaz osotuta babez be, azkenean miretsiko dogu-

zanakaz: Argazkiak ugari, Enbeita ta familikoenak, Balendin Enbeitak eskuz idatzitako bertsoez polito, B. Enbeitak bere bizitzan zear artutako opari ta garaikurrak asko, liburu ta diskoak, B. Enbeitak egindako eta gaur-egun "Ormaetxe" baserrian dirauen kutxak,... Azkenean, bideo emonaldiak izango dira.

Maiburukoak egokiezan itzak adierazo ostean, asi neban nik neure itz-jarioa. Irakur laburpen batzuk pregoia zer dan azaldu ondoren, nik esanak:

—Aita (Kepa) ta semea (Balendin) biak bertsolari, Enbeita sendia augaitik edo, bertsolaritzan oso ernea dan lez. Biak ezagutzen nitun, aita, ni txiki nintzala be, Karmengo Amaren egunean bertsogintzan etorri oi zala, ta semea, Karmengo egunean eta Olerti-Egunean la urtero Larrara etorten jakulako. Orrez gaiñera, 1958'en bertsolarien txapelketa ospatu zan Bilboko Arenal-ean; ni maiko nintzan beste batzukaz eta Balendini emon geuntson lenengo saria.

—Bere aita lez, emen be abots eder baten jaube zan Balendik. Zoli-zoli abestu oi eben, iñoiz be potik egin bage. Ba ete daki txoriak zer kantatzen dauan, eta eguzkiak zegaitik berotzen dauan? Txoriak lez kantari Enbeita? Ez, Balendinek ba-ekian zer abasten eban, maitasuna, aberria, Jainkoa, barruan eroiana...

—Euskal erri geienetan ibilli zan kantari. Jai bat, ospakizun bat zan lekura, ara dei egiten eutsoen. Eta nor ete genduan geiago? Gipuzkoar Txirrita ala Enbeita? Kepa beintzat, Balendin'en en aita, "Gure Urretxindorra", euskal bertsolari guztien gaiñetik dago, ez izan ezpairik, pentsamentuz, kantuz eta ugaritasunez. Or testigu "Gure Urretxindorra" nik 1971'an Buenos Aire-s'en argitaratu nebana.

—Irakur daiguzan bion lanak. Or aren ta onen liburuak eta bertsoak, Dardar egiten eben arein biotzak bertso kantari Gureak be begia dardar eurok kantatu naiz irakurriz. Maite daigun geure erria eusko-bertsolariak ainbat.

Txalo, txistu ta kantu itz-jarioa amaitzerakoan. Ospakizun bikaiña omenaldiari asiera emoteko.

Aste barruan, asteazkenez, 28'an, lenengo mai-ingurukoa. Gaia: "B. Enbeita, gizon, abertzale, bertsolari". Oneik izango ziran txosten-moilleak: *Pedro Mari Aldana*, Basauriko abesbatzaren zuzendaria; *Kepa Enbeita*, idazlea, Balendinen semea; *Bittor Garaigordobil*, gotzaiña; *Alfonso Irigoien*, Deustuko Uni-

bertsadeko irakasle, Jose Ramon Etxebarria zuzentzaile dala.

Bardin ostiralean be, 30'an, mai-ingurua. Gaia: "Bertsolaritza, atzo, gaur biar". Txosten-emoilleak, oneik: *Juanito Dorronsoro*, Guipuzkoatik, irakasle ta idazle; *Abel Muniategi*, Bizkaitik, bertsolaria, adbokatua; *Abel Enbeita*, Arabatik, bertsolaria, Arabako Ikastoletako bertso Arduraduna, Balendiñen sema; *Ernest Alkhat*, Nafarroatik, bertsolaria, Ipar-aldeko Bertsolari Elkarte-ko idazkaria; Manuel Sein "Xanpun", Lapurdiko eta Xiberuaren izenean, bertsolaria, Jose Ramon Bilbao'k zuzenduta.

Azkenez, azaroaren 1'an, igandez, amaiera aundi-bikaiña egin jakon omenaldiari Bilbo'ko Arriaga antzokian, lau ekiñaldi ederrez.

Lenengo dantza soltiak, norgeiagoka. Parte oneik artu eben: Berriz'ko Tomas Jainaga Itza, Abadiño'ko Felipe Amezua, Bilbo'ko Silbestre Elezkano, Laukiz'ko Felix Mota Eguzkitza ta Kepa, Zabaleta ta Motriku'ren triki-trilarien ekiña.

Gero bertso-saioa. Abel Muniategi'k jarriko zitun gaiak, B. Enbeita'ren bizitzeaz batez be. Kantari barriz bertsolari oneik: Xabier Amuriza, Andoni Egaña, Jon Enbeita, Sebastian Lizaso, Jon Lopategi, Iñaki Murua, Anjel Mari Peñagarikano, Jon Sarasua. Antzokia bete-beterik egoan, eta entzuleak txalo beroz eskertzen eben bertsolari bakotxaren alegin beroa. Nik ez neban izan an egoterik, baiña urrengo igandean euskal telebistatik entzun nitun; zortzirak bete-betea, baiña guzien artean, eder, sentipentsu ta joriak, ondo biribildu ta artez aseak, Jon Enbeita'k bere aita zanari, aiteitaren doñu ozen-tsuan abestu eutsona. Eta danok be, gaur nik, lotsa barik dautort enbeitar odolak emondako zituak dirala.

Laugarren egintza Enbeita sendikoei oroigarri bat emotea izan zan. Zer orogaillu? Omenaldia babestu eben Erakunden izenean emon jakena. Biotz-ikaraz esker-

tu ebena, ain zuzen. Txalo-otsak durundu bizia sortu eban antzoki barruan.

Ondoren Jose Alberto Pradera, Bilboko Aldundia-ren buru danaren itzok:

"Jaun-andreok: Balendin Enbeita "Urretxindor-semea" zanari ornen egiteko batu gara. Omenaldi hau Bizkai osoak egiten dautso, eta Balendiñen omenaldia izanik, bere sendi guztiarena bere bada.

"Nik neuk, beste askoren moduan, gernikar ume-txoa nintzanetik gaur arte, egin dautsat ornen neure bihotzean. Umetan, Muxikan igaroten nebazan uda guztiak, eta haurtzaro zoragarri hau gogoratzen dodan bakoi-tzean ezin neike Enbeita-tar sendia ahaztu, eta askoz gitxiago Balendin Enbeita.

"Urretxindor-Umea" azken garaietako bertsolaririk ezagunena dogu, eta omenaldi hau bertsolaria izan dala-ko merezi dau. Baina baita Euskadi eta Euskerea maite izanik, bere bizi guztian heuren alde egin eta garai txarretan zintzotasun eta abertzaletasunez jokatu dau-lako bere.

"Gaur da omenaldi honen azken eguna, baina, jaun-andreok, Balendin Enbeita beti izango dogu geure gogo eta bihoztzean. Eskerrik asko".

Berbok esan ondoren, aurrekulariak euren txanda. *Soka dantza* egindo dabe, Durangon antxaiña lez, Garaiko Sabin Ibabe ta Abadiño'ko Florentzio Berrojal-biz'ek, Berriz, Garai ta Abadiño'ko beste dantzari batzuk be laguntzen dautsela. *Soka dantza* zuzentzen maisu izan da beti Berriz'ko Alejandro Aldekoa.

Azken batean, *Agur Jaunak* Bilboko txistularien Udal Bandak lagundurik. Omenaldi bikaiña. Merezi dau-nari ez jako ukatu bear.

ARTZAIN ONA GOGORATZEN

(Antonio Añoberos)

Nireak garrantzi gitxi dauko.
Beste batzuek azaldu dabez
bere bizitzaren zatirik goragarrienak.
Baiña, zerbait esan gura dot,
Artzain Onaren omenez.

‡ ‡ ‡

Gure Gotzain On Antonio Añoberos
Urkiolan ezagutu neban.
Bilbora eldu barri egoala,
ainbat lasterren Urkiolara etorri zan.
An gengoan euskal mixioen arduradunak.
An egoan bere Zaindari San Antonio.
Inguru onegaz maiteminduta gelditu zan.
Aurrerantzean, bera izan genduan
lagunik eta bultzagillerik onena.
Naiz-eta sarritan etorri Urkiolara,
San Antonio egunean bein be
ez eban utsik egin.

* * *

Zaindariaren inguruan,
bere urtebetetzea ospatzen eban.
Egun orretan erria ikusi eta ezagutzeko
aukera ona izaten eban.
Millaka euskaldun batzen dira
egun orretan eta bera pozik agertzen zan
erritarren artean.
Ikusi neban leenengo egunetik,
Jainko-gizon bat igarri izan neban,
Ebanjelioan oiñarritutako gizon on bat.
Arrezkero, sarritan esan dot
beragan Jankoa asmatzen nebala.
Oso —osoko kristau gizona zan, benetan!

APALA ETA ERRIKOIA

Jainko gizona izanik,
errikoia izan zan.
Bere Gotzain arazoak ondo bete ondoren,
sakristian denpora gitxi egiten eban.
Meza nagusia amaitu ondoren,
kalerako gogoa agertzen euskun.
Askotan, bakarrik egin be...
San Antonioren erromeria erriagaz bat
bizi nai izaten eban.
Erritarren artean aurkituten genduan
bertsolari eta ezpata-dantzariari txalo egiten,
erroskillerari galderak egiten,
jenteagaz inguratuta alkarrizketa pozgarritsuan...
Bazkari orduan bere billa urten bear izaten genduan sarritan.

Egun on !...orrela asten zan jenteakin,
euskera ez ekianarren; erderara jotzen eban gero.
Baiña, Agur beroagaz amaitzen ebazan bere artu-emonak.
Apala eta erri gizona izan zan.
Jainkoa eta gizona ondo lotuta egozan
bere Artzain bizitzan.
Erreztasun aundia eukan jente apalagaz bat egiteko.
Gure Gotzain izan zan bitartean,
erritarrak ba-ekigun On Antonio gure artean izango zala.
Gero, geixorik egoala be,
iñoiz urreratu zan Urkiola aldera.
Iñoren aurka, bein be ez neutson entzun,
naiz-eta bere barruan asko sufritzen egon.


* * *

Bein Ubieta Jose Angel eta Bera alkartu ziran
gure eskaratzean gurekin alkarrizketa gozoan.
Ainbat zirikaratu arren, bere une larritsuari buruz,
ezertxo be ez geuntson atera. Gizon ona, benetan!

MIXIÑOAK

Bere biotz barruan eroiazan gure euskal mixiñoak.
Arduratsu bizi ebazan bertako egoera eta bearrizanak.
Mixioetako albisteak asko poztuten eban.
Mixio batzarretarako beti prest egoten zan.
Guraso on bat lez mixiolariak onartzen ebazan.
Eliz artzaiña zan, mundua aiñako biotz bazala eukan.
Ez dot uste iñori ukatu eutsanik
mixio lurraldetara joateko baimenik.
Guztiontzat ezaguna da
zenbat alegin egin zan, Gurgipe Gotziñaren denporan,
gure mixioak banatzeko, apurtzeko.
Txarto ikusia zan iru euskal Elizbarrutien
alkar-ardura eta arazo au.
Los Riosko mixiolariak ez ziran ondo ikusiak.
Bateri baiño geiagori, pasaportia ukatu egin jakon.
Bilbon, uste dot Madrillen be, gure mixiñoari buruz,
aixe sakarrak ebiltzazan.
Zirarda Jaunaren denporan zuzentzen asi zan arazoa,
bide egokiak eta erabagi onak artuta.
Gure On Antoniok konpromisu ori bereganatu egin eban.
Aurrerantzean ez genduan buruausterik izan.
Zorionez, sasoz etorri zan Bilbora.
Gure euskal mixiñoak barriro be alkarturik
jarraitu eban eta jarraitzen dabe.


JOSEBA I. LEGARZA



AITOR'EN ERIOTZEA

(Balada)

(1.º SARIA)



1. Udagoiena da.

Euskal basoetako pagoak, ipar-aize otzak jota, billuzik dagoz.

Pirine mendietako gaillur arroak edur zuriz jantzi dira.

Altor, euskaldunen Aita Zarra,
"Otsoko" txakurra lagun dauala,
mendiko txabola aurrean begira dago urru-
nera...

Bere mutil leialari deitu, eta diñotso:

"Mutil azkarra,

artu gure Otsoko txakur bizkorra,
eta zoaz Euskalerriko lau aldetara,

nire zazpi semeai mezu au emotera:

"Aitor'en semeok" —esaiezu

"Pirine mendietako gaillurak edurrak zuriz jantzi ditu,
eta zuen Aita Zarrari be buruko uleak jakoz zuritu.

Urteen ekatxak jota,

belaunak jakoz makaldu, begiak illundu, aurpegia
zimeldu...

Zatoze zuen jaiotetxera
zuen Aita Zarrari lenbailen,
betiko bake-lekura joan baiño len,
azken agurra egitera."

* * *

2. Mutil mezulari ariñak, abarkak jantzi, makilla artu,

eta Otsoko txakur bizkorra lagun,

Euskalerriko lau aldeak, bere oin ariñez, laster neurtu
ditu:

Zuberoa'ko mendi garaiak, artaldez beteak.
Be-Naparroa'ko baso eta lur emonkorak.
Lapurdi'ko itxasalde eder, zoragarria.
Gipuzkoa'ko ibar estuak, iru ibaiez ureztatuak.
Bizkai'ko zelai orlegi eta burdin-lur gorriak.
Araba'ko lautada zabala, mendiz inguratua.
Goi-Naparroa'ko lurralde aberatsak, eguzkiz beteak.

* * *

3. Mendiko otso baltzak, ardi-aragi-usain atzetik

beko zelaietara jatsi baiño len,

an dagoz Aitor en zazpi semeak curen Aita Zarra
pozik agurtzen.

Aitor, bizar zuriak, txabola aurrean zutunik,
makilla eskuan, bere zazpi semeai, etorri ala, biotz
aundiz,

"Ongi etorri" samurrena egiten deutse.

Eta bakotxari banan-banan, buru gaiñean esku darda-
ratiak jarrita,

onela asten da profetarena egiten.

"Ongi etorriak", Goi eta Be-Naparroa, neure seme
bizkiak,

euskal etxeko seme nagusiak.

Zuen sorterrira begiratu, eta zer zarien ez aztu.

Zuok zarie, leen-leengo Euskalerrri,

eusko etxearen oiñarri, euskal nortasunaren iturri.

Baiña, kontuz, semeok!

Ebro aldeko ura ez da garbia.

Pirine mendietako iturri garbietan ase egizue egarria...

Ene, Naparroa,

Pirine mendietako arranoa. Zaindu egizu euskal gogoia.

* * *

"Ongi etorria", zu Bizkai'ko semea. Burdin oletako
langillea.

Gernika'ko Arexpean nasal lo zagoz.

Itxartu zaitetz!

Begira, Urduña aldetik arma-gizonak datoz
zure askatasuna lapurtzera...

Padura'ko arriak zure semeen odolaz, gorri gorri ikus-
ten dodaz.

Bizkaia, gudari bizkor. Jo gogor! Bizkai'ko
mugararte.

Malato arbolan zure azkora josita itzi arte.

* * *

"Ongi etorria", Gipuzkoa, neure seme zintzoa, toles-
bakoa.

Zuri zer esango deusut?.

Atzerritarren sareetan atzipetuta ikusten zaitut,

Sare fiñak... Ikusi-eziñak...

Eta zuk begiak zabalik euki arren
ez dozu arrotzen azpikeriarik ikusten.

Ez, seme, ez!. Esnatu zaitetz!

Naparrak ez dozuz etsaiak. Naparrak dira gure euskal
anaiak.

* * *

"Ongi etorri", zu Lapurdi, mutil gazte zoragarri.

Begi eder, barre gozo. Nor zu bezain ikusgarri?.


Zure edertasun orrek zaitu moteldu, eta galdu.

Zugana ipar-aldeetik datozen aberats udalariak,
ez dozuz zure egiazko maitaleak.

Zure gaztetasuna eta edertasuna gura dabe gozatu,
eta zure euskal nortasuna lapurtu.

Lapurdi, izan zaitetz beti euskaldun,

eta ez arrotz aberatsen gozagarri eta jolaskizun.



"Ongi etorria", zu ere Araba, zure lurra bezain biotz-zabala.

Kanpoko etsaiak ikasi dozu gogor egiten, baiña zure barruko jauntxoan ankapean zaitut zapal-duta ikusten.

Ebro aldera jarri zara begira, salbamen eske.
Baiña zeren truke?.

Zure sasi-askatzaille arrotz orrek
Katez zaitu lotuko, eta gero esklabo salduko.

* * *

"Ongi etorria", Zuberoa, euskal dantzari mutikoa.

Txikia zara. Nire seme txikiena,
Baita maitagarriena.

Zu zara Ori mendiko txori abeslaria.
Ez kanta, mesedez, gure aberriaren gau baltza,
eta gutxiago eriotza.

Kanta gure aberriaren egun sentia.
Kanta beti, aertu barik, gure Euskalerrri bizia.

* * *

4. Aitor'ek bere zazpi semeai,
"Ongi etorria" egin ondoren,
lurrean iesarteko a^gindu eutsen.
"Semeok", —esan eutsen—
"urruneko bidez nekatuta zarie egongo.
Zuen Aita Zarra be urtearen-urtez indar barik dago.
Emen zugaizpean etzun
eta atsedean apur bat artu daigun."
"Mutil!"
—agindu eutsan mezulariari—
"Ekazuz gaztai zarra eta ogi erre-barria
baita azken bazkari onetarako
ainbeste urtetan gordeta neukan napar-ardao bizgarria...
Eta euskal sendi osoak, anaitasun ederrean,
Aitor, Aita Zarraren begipean,
jan eta edan eben,
eta aretxaren kerizpean artu eben atsedean.

* * *

5. Azkenean Aitor, geldiro-geldiro, zutundun zan
—Pirine mendietako Jaun Aundia zala emoten eban
eta garrirainoko bizar ziilarrezko zuria bere esku ezkeraz
legunkiro gozarazten eban bitartean
eskuma zerurantz jasota
bere zazpi semeai aolkuak emoten onela asi zan:

"Ene semeok:

Iturriak lasterka ibaira doaz, eta ibaiak itxasora
Nire bizitza be laster bake-itxasora doa, betiko lotara.

Zuen Aita Zarraren aolkuak entzun, bada, erne,

eta zuon biotz barru-barruan gero arduraz gorde.
Aitor'en semeok!

Atzerritarrek ez dagiela inoz be esan,
Aitor'en seme batek berak emondako berbea jan egin dauala,

Emondako berbea sakratua da. Bete egizue.

Gure lurrak ez dira aberatsak,
baiña ekinaren ekinaz ama-lur esku-zabalak
bizitzeko bear dozuen guztia ugari emongo deusue.

Gogoz lan egizue, eta aske biziko zarie.

Lurraren gainean ez da gizon bat bestea baiño geiago.

Danok bardiñak zarie. Zuen gainean inolako jauntxorik ez onartu.

Esklavo bizi baiño, gurago il.

Ez urten zuen aberritik inoren lurrak lapurtzera.
Baiña ez itxi arrotzai zuen lurrak arrapatzen.

*Aberriaren askatasuna
gauza guztien gainetik maite egizue.*

Laiñoetatik gure ardientzat bedarrak azteko
euria eta eguzkia, utsaren truke, emoten dauan
Goiko Jauna,

gurtu egizue.

Goian bizi dan Arekin beti zorretan bizi gara.

Goiko Jaunari egunero "milla esker" esatea ez aztu.

* * *

6. Onetan eguneko argiaren jabe dan Eguzki Jaun Aundia
Pirine mendi ostean geldi-geldi ezkutatu zan,
eta Ilargi betea oskarbian bare-bare,
egin zan gaueko jabe.

Aitor, euskaldunen Aita Zarra,
euskal lur gainean, astiro-astiro, etzun zan
eta Ilargi beteari begira-begira,
bere ezpainen azken otoitz beroa zerurantz jaso eban:

"Ilargi Amandrea,
Ildakoen argia.

Zuk argitzen dozu illen aberria.

Entzun nire azken eskaria:
Zaindu egizu goi-aulki orretatik euskalsendia.

Madarikatua izan bedi anaien zatitzailea,
eta bedi bedeinkatua anaien bake-egillea.

Eta zuk, gaueko Erregin
artu nire azken arnasa zurekin."

Eta begi nekatuak lur onetako argitara itzirik,
Aitor'en gogoa laiñoan gaineko zelai zabaletara igon zan.

GOIKOETXEA'tar IÑAKI

MIKOL ETA ARRAN GAIZTUAK

(2n. Saria)

Ipuin au, obeto esanda, kontakizun au, gure itxisertzeko erri txiki eta jator baten gertatutakoa da; izabere eta arrain gaitzuek gaur baiño sarriago bertako kai aurrera, portuko aora urreratzen ziranetan.

Zein erri?

Itxuratuaz iruditu daigun.

Mendi sakonak daukaz bere lepoan eta beso banatan, itxasora urreratu ala, gero ta txiki ta berago. Erdian, Oiz eta Kalamu mendien sabeletan jaioten diran uren erreka. Mendien itxas-aldeko muturretan aitz lerdenak, tontor txiki noz-nai edo plantza zabal mare berakoetan, ooldiz beteta. Eta erreka egal eta mendi oiñetan, ondar maiak. Sakon unetan etxe moltsoak, lepoz-lepo alkarri lez pendizean.

Izena bera ondarretik datorkio erriari.

Bertako gizonak kresala darioela esan lei begietatik be, malko orde bez beti begi gorri, erreta lez ikusten diralako. Arrantzale dira danak. Deitura jatorretakoak gaiñera: Kitolis, Ikomes, Anton Betosko, Diopil, Mikol... iñoiz liburuetan be agertuak. Danak, eurak konturatu barik, umantak, mitiko antzekoak.

Euren istori bakarra, baiña luzea, eten eziña, arrantza bizitzan kokatzen zan, erramuen indarrez edo aizeak belak bultzatzean emoten daben eragiñez ibiltzen ziran txalopetan oituak, baiña ez itxas bare ta kalma zuritan, aize berde eta ipar baltzetan sarriago baiño, ondamenti, tira-bira, бага, olatu, uin, neke, gose eta abarretara egiñak.

Batak baiño besteak inguru larri ta arrigarriagoetan, ekaitz eta olatu andiagoen artean. Batzuk eta besteak, zeñiek gertaera eta egoera larriagoak mendetuak.

Eta danak, eskaratzeko ormarri erantsita eukiten eben mai gora-berakoaren alboan, arrantzarako atabaka, traol, atxamart, korda, amu, tanta, loro, treotzara, tangart, lanbas, tunbix eta beste ainbat langai, ez galtzeko eran lotuta, egunero ikusten, probetasun salatari eta ogi zorren kontularitzat beti aurrean eukela koska makilla, batzuentzat lotsari, eurentzat gaurko kontu korrentetako taloien aurrelari lez, bear bearrezko, eguneroko ogia urrengoan ordaintzekotan etxeratzeko.

* * *

Mikol etxean bizi zan, erdi bakarrik, mutilzar.

Ama alargunari laguntzen, bai eta koñata bateri be, eta Kirtsanda eta Peru onen semetxoei. Oneik oraindik negar egiten eben itxasora leiotik begiratzean eta euren inguruan gertaten ziraneñ eragin.

Ama zarrak, ainbestean ikusita, agirika egiten eutsan erraiñari, mariñel andrak jaiotzatik dakiela-ta curen zoria eta Jainkoaren naia gaitzetsiten zala beti negarrez ibilita.

Bera nasaien bizi zanean, gizona etxeari begira itto jakon, bere uluak etxetik entzun al izateko eran, orduan igarobide

txarra eukan portuaren sarreran, olatu zakar batek batelari tirabira eraginda. Alkarren jarraiko seme bi geratu jakozan etxean, egunaren ordu guztietan amaren gonetatik tengadaka eta gabetan be amagaz oeratu ezik, gau guztian negar-muxinga eta inkesaka.

Ama irurogeitak urtetan ebillan. Lodi eta lotu soiñez. Noiz-nai unoreak jota. Baiña itxasoa beteko eroapenez. Erraiña, bere zoritxarra ezin gainduta, mirrin eta ziztrin. Ordu batzuk sutarako egur eta abar billa igaroten zitun, erriko beste andreka batean, bestelako lanaren utsez andra gazteak euren kontura artzen ebelako zeregin ori, eta egur txorta andiak ekarten zituen buruetan, zorki gaiñetan, besterik ezean etxeke laguntasun ori billatuz.

Mikol... ez zan ezkondu bera be bildurtia zalako itxasoa-eran eragin eta ondorenean.

Aspertuta, gogaituta lez bizi zan minduta ikusten zitun alargunen artean, eta batez be umezurtz txikiak naigabe itzala sortzen eutsen.

Origaitik iñoiz amak bere egoera aztertuz, koiñateagaz ezkondu edo zerbait egitea umeentzako be lagungarri ta pozgarri izango zala ta ixil-mixillean ekiten eutsanean, la negar geiago eragiteko zetan ezkondu, erantzuten ekian, azken baten bera be, bestien antzera, itxasoari mariñelen eskintza egin bearrean aurkituko zalakoan.

Alako baten, amari amen esatearren, ori baiño ez ba zan ezkonduko zala agindu eutsan, baiña erraiñari berak egiteko mandatua. Eta opil zuria lakoxea zan lez, koñateak ez eban aitzakirik ipini beragaz alkartzeko.

Umeak aita barria deitzen eutsen, amak agindu eutselako geiago osaba ez deitzeko benetako aita zanak zeruetatik esan eutsala-ta bere orde curen alta-barria izateko. Gero nun lo egin be, umeak amagaz oituta egozan lez... Baiña amuma ukondo onekoa zan eta esan eta agindu eutsen osaba ^{Mikol'en} oea konpondu eta an obeto lo egingo ebela, ama gaixo eta mirrin egoalako loditzea be komeniko jakola-ta.

Eta Mikol gero ta etxekoia egoiten igarri zan. Etxean ez zan len aiña negarrik entzuten. Denporak aurrera amak itandu be egin eutsen Kirtsanda eta Peru'ri, aita Santoña-Ameriketara atunetara joatean, naiko etc eben ume mantuko bat ekarte, andrakilla lez eurak eurentzako arrebatzat artu egien. Eta umeak baietz erantzun eutsen, pozik.

* * *

Mikol, nai eta ebillan txalopan arpoilari ardura euki, izurden laguna zan. Arrantzaleak ba dakie izurdak milla mesede egiten dautsela, antxoa, sardiña eta atun sasoiatan batez be, izurdak izaten diralako, euren ibillera luzeetan, dauken duintasunez, arraiña nun dabillen igarri eragiten dautsenak.

Izurden aragia atsegiñez artu eta gauza anditatz eta "kapritxo"tzat zabaltzen dabe curen mesede-egilleen artean, eta nai ta izurdea iltea galerazota egon, iñoiz egoten dira azpikeriz jausi eragin eta arrapatzen dituenak.

Ogei urte erioiazan Mikolek arpoilari, eta sekula ez zan ausartu izurde arpoirik erakusten be, eta oneik be bere txalopa ondolik igarotean, izutu barik ibiltzen ziran, olgetan lez ur parratzada bat edo beste jaurtiaz, igarri lez egiten ebelako arrantzaleak ez eutsela ezer egingo.

Bein, illuntze baten, bale zar bat urreratu jakoen. A ikusi ta gertu ziran txalupakoak bera arrapatzera. Arpoia an egoan eta berari lotuta eukan txikota, naastu barik ete egoan ziurtatu nai izan eben, arpoia balearen mamiñetan sartu eta iñoiz ibillera luze eta etengarriak egin bear izaten zituelako txikotari eusten, batela tatarrez eroaten ebalako eukan indarragaz, batez be minduta eioazenetan. Patroiak Mikol'eri gertuteko esan eutsan. Txalopan aizeaz baliatzeko jasota erabillen beta beratu eben, batera ta bestera zoratuta lez ibili ez eitezan, arpoiz joteko zoririk ba euken, balea indar barik geratu arte.

Eta Mikol'ek lenengo jaurtieran ikutu egin eutsan balean, baiña ez arpoia inkauta geratzeko aiña.

Keixu ebiltzan arrantzaleak, minutako balea zoro antzera asarrekor eta arriskutsu biurtzen dalako. Baiña ez eben etsi nai izan. Lortu eben barriro begiztatzea, itxasoan berde samar igarten ziran aize olatuen artean.

Patroiak zur eta adi ibilteko esan orduko, Mikol'ek indar guztiagaz arpoia jaurti ta oraingoan ondo sartzea lortu eban. Balea, uluka barik, ikaragarriko orruak egiten asi zan, uretan eskutatu eta bereala agertuaz, amorru bizian. Eta urruneratz tengada batzuk egin ondoren, azkatu ezin zala igarrita, txaloparantz zuzendu zan, bere buztanaren txapla-txapladakin itxas arretu bateko olatu andi lakoxeak sortuaz. Txalopara urreratu orduko, gizonak tengo poza galdu eta etorkiena igarrita lez, erreguka asi ziran. Baleak txalopeari emon eutsan zapladeagaz, alboko olak askatu eragin, zati batzuk apurtu eta ura-artzen eta onduratzen laga eban. Gizonak ez eben ia konturatzeko denporarik be euki, gitxiago ezetarako gertuteko, eta ur gaiñean ikusi ziran, txalopatik kanpora, arrenka eta negarrez, alkarrari laguntza eske deika, baiña jantzi ta oiñetakoan pixu eta nekeagaz laster ondoratu ziran batzuk.

Talaixeruak igarri eban bere txabolatik zer gertaten zan. Deitu eban errira, baiña gaba zan gaiñean eta gizonak borondaterik onena eukiarren, eguna egin arte alperriko ebela urte-tea erabagi eben. zaarrenen aolkuz, gau illun eta gordiña etorran itxura be ba egoalako.

Erri guztia leioetan edo mollan ikusten zan, zizpuruka, arrenka.

Mikol'en ama, emazte eta umeak ez eben etxetik kaleratzeko adorerik euki, eta lorik be ez eben egin. Miran bat eskatzen eutsen Andra Maria'ri, euren egoera kontuan artzeko, errukior ba zan...

Gaua eteten asi orduko, gizonak txalopetan gertu ziran itxasora urteteko, besteen laguntzan edo asmo orretan, eta portu egaleko ondartzan, gauza arrigarri bat igarri eben.

Izurde bi egozan, buztanari eragiten eta uluka, arnas estuka, eurak sartu ziran tokian itxas ura beratu zalako eta eurak ondartzan, legorrean, ur barik, arnasarik ezin artuta igarten ziralako. Eta euren alboan, konorta galduta, baiña oraindik arnas estuan, aga baten lotutako gizon bat: Mikol.

Urreratu ziran eta bereala alegiñak egin Mikol berotu eta berera ekarten.

Lortu eben ori, eta Mikol izurdak nun ete egozan deika asi zan, berbarik ia ezin asmatuta, zoratu bearrean.

Eta nekez eta estutasunez kontatu eban gertatua.

Izurdak bere lagun andi gertatu ziran. Tirabira egitean, iñoiz lenago be olakoetan besteak egin eben antzera, erramu *baten lotu zan*, laguntzaren bat etorri arte azalean irauñ al izateko asmotan, Izurdak andik igarotean, bera zerbait egingo eutselakoan bildurto zanarren, izurde bik aotan bere erramua artu eta tatarrez ekarri eben ondartzara.

Gizonak ori entzunaz batera estu ebiltzan izurde tangartetan ura ekarten asi ziran, edaten emonaz, eta gero bilinbolonka itxasoraiño croan edo beratu zituen uretan ikusiagaz batera bizi-bizi, zoratuta lez, soifñu luzeak jaurtiten iges egin eben izurde bici.

Mikol etxera croan ebenean, etxeako ez eukan adorerik ez indarririk atera urteteko be, txarrena gertatu zalakoan, baiña bizirik eroela konturatu ziranean, musuka jan bearrean erabili eben.

Eta gero... ia gaurik ez zan igaro gertaera ori gogoratu barik.

Ordutik Izurdenekoak deitzen dautse Mikol'en ondorengoei be.

Orrelako gertaerak agertzean gogoratzen da izurdeak ez dirala batetik arrain gaiztuak, izabereak diralako, eta ez dirala gaiztuak, arrantzaliek lagun eta mesede egille baiño. Eta arrantzaleak begi onez ikusten ditue eta itxaropenez izurdak curen ingurutan.



Itxastarren itz batzuk

Amu.—arrantzarako gako.

Atabaka.—Itxas tresnak gordeteko kutxa.

Atxanarta.—*Lau* amukin egindako arrantzarako gako.

Baga.—Azpiko olatua.

Erramua.—Arraunketarako tresna.

Izurde.—Itxas urdea, delfin.

Izabere.—Itxas aberea.

Korda.—*soka* moltsoa.

Koska makilla.—*Ogiak* zorretan etxeratzeko ol zapata.

Lanbas.—Txalopen egalak garbitzeko trapuz eta makillaz osotutako tresna.

Loro.—Arrantzaleak arrain anditarako erabiltzen daben alambre meia.

Ooldi, oroldi.—aitzetako berdiña, alga.

Ondar mai.—ondartza.

Opil.—*ogi* biribil.

Santoña Ameriketa.—Arrantzaleak atuntsu denpora Santoña aldetik egin eta dirua andik ekarten ebelako deitura.

Tangarta.—Zurezko urontzia, bateletako urak atara al izateko egiturakoa.

Tantza.—"pita".

Traol.—Aoarixuak batzeko tau alderdidunolezko tresnatxo.

Treotzara.—Tertzak batzeko olezko otzara.

Txikota.—*Soka*.

Tunbix.—Aparixuei uretan azaletik eusteko tresna, "boya" txikia.

Uin.—Olatua.

Umant.—*Gizon* andi.

SORGIN BATZARRAK eta GIZON KONKORDUNA (3.n SARIA)

Danak entzun izango zenduezan batez bere gaztetxoak ziñiela, sorgiñak errietan egiten ebezan "sorgin--dantza" edo euren Akelarre edo ospakizunak.

Gure errian be, orrela entzuten ziran eta bai "ikus" bere eurak alkartzen ziran tokiak. Onelako toki bat, Ametzola'ko zelaia deritxona zan. Au dago Otxandio ta Anboto bitartean: Oleta'rako bidean. Esaten daben lez, illa'ren irugarren bariku edo ostiraletan alkartzen ei-ziran. Mota askotako sorgiñak egoazala entzuten gendun: batzuk, Anboto aldetik etorten zirenak, illun jantzita eta euren izuzki gañean egaz etorten ei-ziran Akelarre orretara eta bardin batzarra amaieran, era orretan joaten ei-ziran euren kobetara. Beste batzuk, aker adar aundidunen gañean: eta goren-guak, zaldi zuri eder bular gogor eta griña luzedunen gañean.

Akelarre entzutetsua zan, ta bai sorgiñak eurak eukien almena be, txarrerako eta onerako.

Au dala-ta, gure errian bizi zan Txomin izeneko mutil konkorduna, zoli egoan itz onek entzuten eta arduraz jarri zan sorgin orreik zer egiten euren batzarretan ikusteko. Eldu zan ba illaren irugarren barikua ta Txomin gure mutilla gautu baño len Ametzola'ko zelaira urreratu zan eta zelai orren inguruan egoan zugatz batera igo ta gorengo abarretan ixil-ixilik geratu ei-zan Akelarreko jai guztia ikusteko. Bere barrua ikaraz jarri jakola esaten ei-eban toki orretan ikusi ebezan gertakizunakaz: ango irrintzak; ango orroiak eta diarrak; ango kalamatrikak. Zaldi zuriak, ostikoak gora-goraka bere griñari ereinka agin ederrak erakusten ebezala, burua gora jarririk.

Akelarre au amaitu baño len, urrengoa noiz eta zelan izango zan erabagi ondoren, bakotxa bere etorri ziran tresnetara joazala, sorgin orretatik bat oartu ei-zan gure Txomin egoan aldera begira ta ara nun ikusten daben zugatz gañean gizon bat sorgin etzana. Inguratu ei-eben zugatz ori ta itandu: nor zara zu? Zertan etorri zara onera sorgiña izan barik? Jatsi zaite beriala ta esan nor zaran eta nork bialdu zaitun.

Baña bere erantzunak ez ziranez sorgiñen gogokuak, epaitu ta zigortu egin bear zala erabagi eben. Batzuk, il egin bear zala eskatzen eben: besteak, bere bizian gogoan izateko zigor bat eman bear jakola. Ez ziran alkarregaz ados. Azkenean sorgin nagusi egiten ebanak esan ei-eban: betiko goguan izan daien lepoko konkorra kendu ta emen berton ostenduko dogu: doala ba konkorrak etorri zan

bidetatik. Danak eritzi eutsen ondo artu eben erabagi orreri.

Au bai Txomin'en bere barruko poza! baño ez eban sorgiñen aurrean agertu gura beren poza! Zigortu egin bearrekoan zoriondu egin ebela ta pozaren-poz konkorrak barik agertu zan bere errian, baño ez lenengo ortik zear egun batzuk igaro barik, jazoera aundi au ospatzeko.

Arro-arro agertu zan-ba bere burua gora ebala erriko lagun artera, ebakuntza bitarte kendu eutsela agertuaz.

Mirari au zabaldu zanean, bere lagun zan Patxi izena eukan erriko beste konkorduna, ernai ebilla Txomin'en billa beragaz itz egiteko, azaldu dagion zelan lortu eban bere konkorra kentzea.

Txomin ez egoan bere arazoa iñori argitaratzeko ain ziur, baño lagunak izan da ezer ez esatea be, ez zegoala ondo ta bear ebezan azalpenak emon eutsozan.

Au bai Patxiren poza!: urrengo izango zan Akelarrerako gertaerak egin eta bere laguna etorri zan lez konkorrak barik errira agertzeko amesetan.

Eldu zan-ba Akelarre egun ori: Gautu baño len gure Patxi an egoan Ametzola'ko zelaian egoan zugatz baten igo-ta, Txomin bere lagunak esan eutson lez Akelarreko gora berak ikusteko. Baña zer uste dozue gertau jakola Patxi konkordunari? Akelarre amaitu eta sorgiñok bananduten asi ziranean bera nun dagon oartu barik, biotza estutu jakon eta estutasun orregaz eztul batek urten eutson eta eztul ori nondik etorran oarturik, an ikusi eben gure Patxi zugatz ganean egoala.

Sorgiñetatik nagusi egiten ebanak, beriala lurreratzeko agindu eutson eta gure Patxi pozik bere lagunari egin eutsena berari be egingo eutsela-ta. Batu ziran ba, Akelarre orretako epaikariak eta bertan asi ziren zelako zigorra eman bear jakon erabagiten: batzuk, aurrengo egin eutse-nari egin bear jakola eskatzen eben; besteak ori ez zala naiko. Azkenean, danak jarri ziran ados aurrekuari kendutako konkorra oneri papar aurrean ipintea ta konkorrak bi-kaz etorri zan bidetik bialtzea.

Orra gure Patxi'ren zoritxarra. Zergaitik? Iñork dei egin barik musturra sartu ebalako, edo norberak daukon ego-keraz erako ez zalako edo besteak eukana gura ebalako.

ALZOLA TA BARAINKA'tar ELIXE

GABAREN ATARIAN

Itxas ertzean nago
gabaren atarian.
Alde batetik
sartzera doan eguzkiaren
margo odoltsu ta gorria,
ederrik, zoragarri,
gorrizta-bellegizko
odei arin artean.
Eta, bestetik
apar bitsetan,

oinpeko arkaitzetan
zauritutako itxasoaren
odol zuria.
Zuri ta gorriaren arteko
ikuspegi ausnargarrian
arrantzaleak eta antxetak
itxasoaz,
eguzkiaz,
arrantzaleakaz,
ta, antxetakaz...:

Ni
igaro bidezko
begiralea,
an
goiz ta arratsero barritzen
dan
aldaketazko
gertakari aundi baten
betikortasunezko
edertasunpean.

MUNIATEGI-tar SABIN

ABADEAK ETA AÑOVEROS GOTZAIÑA

Egia esan, abadeak ilusiño aundi barik
onartu genduan gure Gotzain barria.
Ez zan euskalduna... Gurekin iñoiz artu-emonik ez eban
izan...
Nekez eta gogo ezkasagaz artu genduan.
Danok genbiltzazan sakabanatuta, gogo barik.
Lan ikaragarria egin eban, On Antoniok, abadeekin.
Astiro -astiro, eroapen aundiagaz,
batu eta alkartu egin genduzan.
Ondo gogoratzen dodaz Euba eta Urkiolako abade otoitz
egunak.
Illero etortzen zan gure otoitz —batzarra zuzentzen.
Abade mordoia alkartzen giñan.
Gure Bikariako abade geienak, beintzat.
Eta pozik alkartzen giñtuzan.
Leenengo zatia elizan, otoitz giroan.
Bere itzaldia barrutik sortutakoa izaten zan.
Paper gitxi erabilten eban.
Bere Jainko bizitzatik berba egiten euskun.

Otoitz sakona, une larri aretan egiten genduan!
Elizatik, egon-lekura joaten giñan.
An alkarrizketa zintzoa erabilten genduan.
Galdera guztiai erentzuten alegintzen zan.
Ezer ez eban gordeten. Ez zan "diplomatikoa".
Konfiantza osoa jarri eban bere abadeengan.
Eta onek be, beragan jarri eben curen konfiantza.
Bein baiño sarriago, gure galderak erantzun sakonak
eskatzen eutsoezan. Ez eukan bildurrik.
Iñoiz, norbaiten aurka bazan galdera,
eziñekoa ebalu erantzutea esaten euskun.
Eta danok ulertzen genduan bere ezin-esanal.
Nik ez dakit nundik ateraten eban denporea, astia.
Baiña, guretzeko, abadeentzako, aita on bat izan zan.
Poztasuna eta ilusiñoa sortu eban gure biotzetan.
Bere inguruan batu genduzan.
Ezin dodaz aztu arek egunak.
Eskerrik asko, on Antonio!.

JOSEBA I. LEGARZA



ZER' en zenbaki au irarkolan egoala, samintan
aundiaz barri negargarri au eldu jaku: Gure
Lankide eta adiskide izan dogun Gallastegi'tar Klau-
dio San Anton'go Txanburu oorezkoa Aitaren Etxe-
ra joan jakula. Betiko atsedena izan dagiala.

Urrengo zenbakian izango dogu berari buruz
idazteko aukerea.

IDAZKOLAKOAK



:OKEL A BIKAIN ETA MERKEA

Baserri-etxe bateko, bizi-lagunak aal zan bezala bizi ziran eta gutxiena espero zutenean, ikulluan zeukaten beirik ederrena ta esne geien ematen zuena gaixotu egin zan eta egunetik-egunera okerrago aurkitzen zan, esnea urritzen ari zitzaion eta jateke gogorik gabe ikusten zan. Etxen andre-nagusiek larritzen asi ziran egoera arrekin eta azkenik albaiteruari deitzea erabaki zuten.

Beterinarioa, etxeratzu zanarekin batera konturatu zan bei ura oso egoera larrian zegoela ta azterketa sendo bat egin ondoren ez zion tankerarik ematen ze gaitzek jo-ta zegoen. Beste lurraideetan azaldu zan eta berak entzuna zeukan gaitz kutsakor bat izan zaitekeela bururatu zitzaion, eta neurri bereziak ar erazi zizkien etxekoei, bada-ez-bada-ere kutsua beste abereetara pasa ez zedin eta eurek ere beia ikuitzen zuten bakoitzean arreta aundiarekin garbitasun aundia eduki zezatela, bada gizakumeei ere kutsatu zetzaiokela.

Neurri oiek artu ondoren eta botika batzuk emateko agindu, etxeratu egin zan, baiña kezkatu zegoela antzematzen zitzaion, bada len aipatu degun urtietako gaitz kutsakorra izan zitekeela eta erri osoan zabaltzeko arriskua zegoela beldur bai zan. Egoera ortan igaro ziren beste bi egun eta beia gero ta okerrago aurkitzen zan eta, azkenik, irugarren egunean, albaiterua iritxi baiña pixka bat leenago il egin zan. Ura ikusirik, bereala lurreratzeko agindua eman zuan eta era ortan inguruko baserritarren laguntzarekin mendi-tarte batean eortzi zuten, kare autsez gorputz guztia igurtzi ondoren.

Bereala zabaldu zan inguru artan baserritar gizarajoei gertatutakoa eta danak penatu ziran gertaera orrekin, etorri zitzaion kalteataz eta era berean berak ere larritzen asi ziran.

Beia lurperatzen aritutako baserritar batek berekiko era ortan oldoztu zuen. Nik ikusi dut beia eta lurperatzerakoan egin zaizkion ebaki batzutatik ikusi aal izan dedanez bei ori ez zegoen ain txarra okeletarako, ta, iñori ezer esan gabe, gau artan bertan, bere seme zaarrenarekin batera, lurperatu zuten, lekura urbildu, aal zan ixillen lurra baztertu, atzekaldeko zati eder bat ebaki, zaku batean sartu, lurra leen zegoan antzera estali eta ixil-ixillik etxeratu egin ziran.

Emaztea, aragi pilla ura ikusi zuanean zearo arrituta gelditu zan, ziur bai zegoen ez zala arositakoa izango, etxe

artako diruzaiña bera zalarik eta jakiñik zenbat estutasun pasa bear izaten zitun etxerako bear-bearrezkoak ziran gauzak diruaren bitartez erosteko. Ixillune baten ondoren, senarrak, itz-erdika, ausarditu eziñik bezala, poliki-poliki, aragi zati ura nondik lortu zuan jakin arazi zion eta bere ustez ez zala txarra, bada albaiteruak ziur ez zegoelako zertatik il zan, bada-ez-bada-ere lurperatzea agindu zuela.

Emaztea ez zagon ados arrazoi orrekin, bada, oso kezcaria zalarik, beldur zan gaitz kutsakorren bat izan zitekeela beia il eragin zuena eta arriskutsua iruditzen zitzaion bere sendiaren osasuna arrisku arbartan jartzea. Bestalde, zer gertatuko zan gaixotu ta sendagillearren bearrean urkitzen ba-ziran eta inguruetan jakingo ba-lute nondik sortu zan ondoeza? Oso urduri jarri zan une batean eta bereala aragi zati ura bere begien aurretik kentzeko eta non edo an ezkutatu zezala agindu zion bere senarrari.

Baiña gure gizona ez zegoan ortarako, aspaldian sukalde artan ez bai-zan okelik ikusi aal izan eta sardin-zaarrak eta bakaillo isatsak izatean bai ziran otorduetako jakiak. Legun-legun, emazteari, era ortan mintzatu zitzaion. Ez zaite larritu emakume, orrelako egokiera ez da noiz-nai izaten eta lasaitu zaite ta entzun ezaidazu.

Egin genezakeena zera da. Osaba Kosme aspaldian gaixo dago ta gizarajoa ez da oetik jaikitzeke gai, gutxiena uste degunean il egingo da, naiz eta gure aldetik aalegin guztiak egin, eta zer iruditzen zaizu okel zatitxo bat, bear bezala atondua, berari jateko eman eta ea zer gertatzen dan ikusi? Lenengotik emazteari ez zitzaion ongi iruditu ori egitea, baiña bereala bere buruarekin itz egiñaz bezala era ortan oldoztu zuan. Egia da, gure aldetik aalegin guztiak egiten ditugala bera zaintzen, baiña ezin dugu elikatu naiko genuen moduan eta ez litzaioke gaizki etorriko aragi zati batzuk jatea. Gizarajoa anka bat illerrian daukala dago, animaren aldeko laguntzak ere eskeintzen dizkiogu, eta nor daki!, agian auleriak jo-ta egongo da, ta okela ez bada kutsakorra ba-daiteke bizkortzea eta ala ez bada gertatzen ez daukagu zertaz kezkatu bearrik, bada iltzea bada ere, otordu eder batez aseta joango da, mundu ontatik.

Azkenik, beren kezka baztertzeko aitzakiak aurkitu zituztelarik esan bezala, bi aratzerra mee xamarrek errazago jan zezan, ortzak ere kamustu xamarrek bai-zeuzkan, ongi maneatuak patata prejitu batzuekin lagungarri bezala eta errexago irentsitzeko baso bat ur-ardorekin bada-ezpada

ere kalterik ez egiteko moduan, muttiko gazteenarekin bidali zizkioten. Ura dana ikusirik, oean zegoen zearo arrituta gelditu ornen zan, baiña gizarajoak buru piska bat arindua zeukalarik, batetik, eta gosea ere bai aspaldidanik, poliki-poliki, oso gustora jan ornen zitun aragi puskak ezpaiñak milizkatuaz eta geiago jango zukeen gogoarekin gelditu ornen zan.

Gurasoak sukaldian zai zeuden mutikoa noiz itzuliko zan, aguretxoak nolako arrera egin zion jakitearren. Jetxi zan semea eta gurasoen galderari, zeatz-meatz kontatu zien zein atsegin gertatu zitzaion gaisoari alako jaki gozoak jatea eta oso eskertua gelditu zala egin zuan apariagatik.

Sume gazteak esandokoarekin piska bat lasaitu ziran eta, semeak oeratu ziranean senar-emazteak sukaldian jarraitu zuten alditxo batean ea zantzuren bat entzuten ote zuten, adi egonaz. Ordu bete bat igaro ondoren etxeko-andrea anka punttan gaiñean urbildu zan mutil-zaarra zegoen gela ingurura ta lasaitasun aundi bat nabaritu zuan konturatu zenean osaba Kosme zerraldo lo zegoela zurrungaka.

Urrengo goizean, goiz xamar, etxeko-andrea gaisoaren-gana urbildu eta erdilotan aurkitu zuan eta ea zer moduz zegoan galdetu zionean, era ontako erantzuna jaso zuan. Urteak dira ez nuela orrelako otordu goxorik egin eta orretaz gaiñera aspaldian egin dudan lorik gozoena egin dut, et ez ori bakarrik, orrela jan ezkerro beste berrogei urte biziko naizela amets egin dut.

Ori entzunik, etxeko-andrea zearo poztu zan eta sukaldia jaxi ta bereala, etxeko guztientzat okelez ornitutako gosari bikain bat gertatu zuan, ikusirik aula zegoenari ez ziola kalterik egin albaiteerak txartzat jo zuen beiaeren okelak. Gustora zan zuten otordu berezi ura, platerak ederki milizkatuaz, aspaldian ez bai zuten alako okel guririk janal izan.

Beste otordu pare bat egin ondoren eta konturaturik ez zata kaltegarria, alderantziz baizik, on egiten ziela denari, beste aragi zati bat etxeratzea eta zezintzea erabaki zuten, emaztearen onespenarekin.

Gaua iritxi zanean zai egon ziran inguruetakoko etxeetako argiak itzali arte eta beren onerako oso gau illun gertatu zan. Aita-semeak an joan ziran berriro ere beste puska baten billa, oraingoan astoa lagun zutela. Leenagoan bezala, turra kendu, zatirik ederrena ebaki, bi zati egin eta asta-zestuaren alde bakoitzean zamatu, lurra leen zegoan eran estali ta etxeratu ziranean, zerrikia gazitzen zuten kutxan txukun-txukun gazitu zituztena oraingoan ekarritakoa eta baita ere leenago ekarritako puska bat eta arri aundi batzuk gaiñean jarri zituzten okela bear bezala zezindu zedin.

Era ortan, eguna joan eta egun etorri, otordu ederrik antolatzen jarraitu zuan etxeko-andreak eta era berean gure aguretxoa, bere gelan baztertua aurkitzen zana, gero ta bizkorrago azaltzen zan eta ez ori bakarrik alaitzen ere ari zan eta noiz-nai bertso zaarrak abesten ari zala entzuten zan. Aldaketa ederra egin zuan osaba Kosmek egun gutxitan; leenago eriotza noiz bere billa etorriko zan otortzean egoten zana, orain, berriz, bertsoan, eta, poliki-poliki lendabizi mandioraiño eta geroago sukaldieraiño jeisten ere asi zan eta zerbaitetan laguntza eskeintzen ere bai, berak egin zezakeen neurrian.

Eta udaberria eldu zan, eguraldiak ontzen joan ziran eta gure mutil-zaarra etxe atarira irteten asi zan eta an igarotzen zituan ordu batzuk ikullu bazterreko orma babesleku zuelarik esku-lan batzuk egiñaz. Pozik zan gizona orrenbesterako gai zala ikusirik.

Egun batez, era artan zegoela, aspaldian ikusi gabea zuan inguruko baserriko emakume bat urbildu zitzaion eta ea zer moduz zegoan galdetu zionean era ontako erantzun jaso zuan: Negu aldean oso larri aurkitu zata, otzak eta auleriak menderatu-ta eduki zutela eta etsita egon zala geiago kaleratzeko gai ez zata izango, baiña bakardadean igarotzen zitun ordu luzeetan otortze asko egiten ziola Jaungoikoari eta ba-zirudiela beratzaz errukitu zala, ta, tarteka--tarteka, aragisalda goxoa eta okel puska eder batzuk janaz berriro osasuna biurtzen ari zitzaioela eta bere gorputz aula indar-berritzen ari zela. Orrezaz gaiñera etxekoek oso ongi zaintzen zutela, begirune aundia ziotela ta oso pozik aurkitzen zala jaiki ta etxe-atariraiño jeisteko gauza zala ikusirik.

Emakumea arriturik gelditu zan entzun zuenarekin naiz eta kontuan izan buru-aldia piska bat arindua zekala, baiña bere zintzotasuna nabarmena zan eta orrek geien arritzen zuan jakiñik etxe artako egoeraren berri, baiña sekula ez zitzaion bururatu alako aldaketa nondik etor zitakeen, are gutxiago bere ikulluan gaisotu eta lurperatu bear izan zuten beiak zer ikusirik izan zezakeenik miraritzat jotzen zuan gertakizunarekin.

Kaleko arakin bakarrak ori bera entzun izan ba-lu, zertaz kezkatua izango zuen jakiñik aspaldi artan baserri artako etxeko-andrea ez zala urbiltzen bere arategira, ez aragi billa ezta ere aspaldian zor zeuzkanak ordaintzera, zekorra saltzerakoan pagatuko zituan aitzakiarekin eraman-dakoak.

Nota nai ere, iñork ez zuan susmotu lurperatutako abereak eortzi zutenean baiño aragi zati batzuk gutxiago zituenerik eta bitartean, baserrikoek, leenengo egunetako kezka bazteraturik, andika moku goxo jan zituzten bestela lurpeko arrak jango zituztenak, albaitearearen erabakia-ri esker.

KORTAJARENA'tar ANDONI

ORDUA

Oto joan da Bermio'ra ordularirik bage. Badagoz errian pillo bat ordulari, baiña Otok ez dau bat bera be ikusten. Gerturatu da gizontxo baterengana galdezka:

—Txo, mesedez esango daustazu ordua.

Gizontxoak: —Ordua.


Otok: —Ez, ori ez, nik trenaren ordua esatea nai dot.

Gizontxoak: —Trenaren ordua.

Otok: —Ez, ez, ori ez. Nik gura dotena da, zeuk esatea oraingo trenaren ordua.

Gizontxoak: —Bai, bai, "dakor": oraingo trenaren ordua.

Otok bere buruari: —"Dakixenak badakixela". Emen ez dozak danak "barruan"...




POTOTO DENDARI

Kiebra jotako etxe batean elektrika-tresnak erosi dauz Pototok merke. Teknikoa dabil tresneriari bigarutzen urduri eta larri.

Pototok esan deutso:

—Ez zaitetz larritu jakin guraz zergaitik dabilzan ain txarto tramankulu onek. Danak osorik eta prezio onean saldu dauzaguz Otori. Bide ederra eroango dabe Australiatik ekarrirako Otoren dirutxuak...



JAINKOAREN DIRUTXUAK

Oto Kristiandadeko Ekintza Europear artean sartuta dabil. Astebeteko jardun-aldiak izan dabez St-Denis deritxan Pariseko auzo batean: aleman, frantziar, ingles, eskoziar... Nai dan beste jende, klase guztietakoak.

Arazo asko eta eztabaida asko. Danen artean galderatxo bat:

—Zelan banatzen dozuez batzen diran diruak?

Alemanak erantzun:

—Guk errez. Batutako danak sakela batean imiñi, lurrean klarionarekin kurpil borobil bat marraztu, gero sakelako diruak

aidean bota gorutz... Kurpillaren barruan gelditzen direnak, Jainkoarentzat; besteak, geuretzat.

—Guk errezago —diño frantziarrak—: lurrean marra bat egiten dogu, diruak gora bota eta marraren eskoi aldetik jauren diranak, Jainkoarentzat; besteak, geuretzat.

—Zuek konplikatua zarie —diño eskoziarrak—: guk errezago. Ez dogu ez marrarik, ez borobillik egiten eta orrela klarionik gasta bearrik be ez...

—Zer egiten dozue, ba...?

—Gauzarik errezena: diruak gora bota eta Jainkoak artzen dabezenak, beretzat; beste guztiak, geuretzak.

* * *

Oto arrituta dago munduan ibilliaz zenbat ikasten dan:

—Arrazoi eukan-diño-gure irakasleak, burua erabilliaz baiño geiago, ikasten dala oiñak erabilliaz, esaten ebanean.

Erabagi sendo bat artu dau: Ikastola Nagusiko matrikula egin baiño, oba dabela bere izena eskursiño guztietarako emotea.

ARRINDA'tar ANES

ARGIA AMATATEN DANEAN

"Concilium Vaticanum" antolaten diarduan abade eta praille moltso eder batek. Euren artean egozan, salmoak abatea ain maite daben, beneditarrak. Salmoetan topaten dabe euren bizitzarako argia eta Jainkoaren indarra.

Bededitarrekin batera dominikarrak be bai. Oneik, Akino-k Tomas Deunaren jarraitzaileak diranez, arrazoia dabe elburu eta jomuga nagusia; burua erabiltzen dozak oneik, mutillak.

Euren artean ba egozan Loiolako Iñigoren semeak be. Iñigok koruko salmo-kantak kendu eutsezan bere semei, eguneroko lanetan askatasun geiago izan dagien lagun-urkoaren alde lana egiteko: ikastolak jaso mailla guztheitakoak, gaixote-giak egin eta abar.

* * *

Billera aretan, bat-batean, argia amatau zan eta danok illunetan gelditu dira. Beneditarrak berealako batean asi ziran kantari: "Jauna dot argi..." Argia gora eta argia bera... Dominikarrek, berriz, kandela bat biztu eta asi ziran argiaren goraltzak egiten eta errotik bere sortzea aztertzen: nundik norakoa dan, zer indar-mota dituen... Eztabaidan ekin eben. Iñigoren seme batek, bien bitartean, txiskeroa biztu eta "plomo"aren billa asi zan erretako aria aldatzeko. Aldatu ebanean, barriro argiak batzarre argitu eban.

* * *

Kantuan berriro beneditarrak, Jainkoari argiagaitik eskerak emonez... Arrazoibidetik dominikarrek argiaren ederra aztertuz... Loiolatarrak, bien bitartean eta bada ezbadan be, "plomoa"ren ondoan beste aritxu bat ipiñi eban urrengorako.

Otoitz-bitartean, mailluakin emon.

Edo, beneditarrak curen biziaren zuzenbiderako daukaten ikur au: **ORA ET LABORA**. Biak batera.

Baiña, Oto maltzurak, bededitarrekin praille-mutil egoala, onelan euskeratu eban bere kolkorako: **JAN** eta **LO**.

ARRINDA'tar ANES

JUANTXO-TXIKI TXIMIÑO ETA MATXANGO

Gizonak egiten dauena egiten saiatzen da tximiñoa eta matxangoa. Umetxoa be zure inguruan dabil, zuk zer egingo, axe egiteko matxangoaren antzera.

"Umeak zer ikusi, a ikasi".

Ondoren, ikasitakoa egin. Ikusiak eta irudimenak ipintzen dautso motorra martxan, ikasitakoa egintza biurtzeko.

* * *

Umeago eta areago. Zenbat eta umea umeago, ainbat eta esan doguna egiago. Nortasunik ez daualako da tximiñoa imitatzaile eta beste orren beste jazoten jako umetxoari be: zenbat eta norkia edo persona txikiagoa, ainbat eta imitatzaile aundiagoa.

Danentzat dau ejenploak, indar aundia.

Baiña, nortasunik gitxien dabenentzat, indarrrik aundiena.

Juantxo-txikik nortasun gitxi daula, agirian dago.

* * *

Umetxoen aurrean egiten dozuzunak, orretxeek egiteko gogoia eta irrika sortzen dautsezu barruan.

Gogo bizia.

Irrika larria.

Gogo eta irrika orrek eraginda zuk egiten dozuzanak egiten saiatuko da.

Zer ikusi, a ikasi.

Zer ikasi, a egin.

Orra Juantxo-txikiren jokabidea. Zezenak izan dira errian jaietan?

Ondoren, zezen-adarrak ikusiko dozuz umetoxen eskuetan jolaserako eta zezenlariak ugari erriko enparantzian. Ezpata-burrukak ikusi dauz zinean? Laister izango dira umetxoen eskuetan egur-ezpatak burrukarako.

* * *

Era berean jazoten da ideiakaz be.

Buru-barruko ideia, irudimena, gogaketa utsak, orreik be, sortzen dauskue irrika bat gogoan eta auxe da: orreik egiten asteko gogoia.

Pentsamentu utsa, egite biurtu.

Pentsakizun biziak badira, irrika biziagoa eta gogoia sendoagoa.

Bizitasunaren neurritz, gogoaren aunditasuna. Ori alde batetik.

Bestetik, barriz, nortasuna txikiagoa eta irrika biziagoa. Irudimenaren bizitasuna eta nortasunaren ergeltasuna, biak jokatzen dabe batera umetxoa tximiño biurtzen.

Juantxo-txiki zer da?

Irudimen bizia alde batetik, eta bestetik nortasun eskasa, orregaitik sortzen jako barnean irudimenaren irudiak egiteetan mamintzeko gogo bizia.

* * *

Bi irakatsi gogoangarriak gai oneri buruzkoak:

Lenengoa:

Arduraz begiratu umetxoen aurrean zertzuk egiten dozuezan, oneixek egiten aleginduko da. Onak naiz txarrak. Zuzenak naiz okerrak.

Bigarrena:

Kontuan artu zer ipuin eta zer edesti esaten dautsazuen Juantxo-txikiri, orreixek egiten aleginduko da.

Colón de Larreátegui, 14 - 2. dcha. BILBAO-1


Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoiari, itzaropena oztopoen gaiñetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez daroan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.